



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 13a

30. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako 2015eko Kontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dislexia duten ikasle guztien ikaskuntza errazte aldera ikasgelako metodologian lagunduko duen prozedura bat taxutu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garbiketa zerbitzuen kontratazio publikoari buruzko txosten bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da handitu dezan Nafarroako Lanbide heziketako ikastetxeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua. Hezkuntza Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestazio ortoprotesikoen katalogoa gaurkotu dezan. Osasun Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Karlismoaren Museoaren edukiak berrikus ditzan eta azaroaren 11ko 81/2016 Foru Agindua indarrrik gabe utz dezan. Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, lan-mahai bat abiaraztea proposatzen da, untxi-izurritako soluzio-neurriak ezartzearen. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako herrien izen ofizialak erabaki ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olló, egia ez esateagatik Nafarroako Gobernuak ETaren terrorismoaren biktimekin izandako harremanari buruz. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri ekonomikoak har ditzan, Nafarroan enpresen deslokalizazioa ekiditeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroako 2015eko Kontu Orokorrei buruzkoa.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, 2017ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Nafarroako 2015eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua bazter uztea.

Erabaki hori argitara dadin agintzen da, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dislexia duten ikasle guztien ikaskuntza errazte aldera ikasgelako metodologian lagunduko duen prozedura bat taxutu dezan.**

**OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko otsailaren 2an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dislexia duten ikasle guztien ikaskuntza errazte aldera ikasgelako metodologian lagunduko duen prozedura bat taxutu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Ikasgelako metodologian laguntzeko prozedura bat taxutu dezan, dislexia daukaten ikasle guztien ikaskuntzan laguntzeko, prozedura hori 2017ko irailean abiaraz dezan ikastetxeetan eta dislexia duten ikasleen errolda bat egin dezan.

2. Dituen eskumenen esparruan hezkuntzarako eskubidea berma diezaien dislexiadun

haurrei beren eskola-bizitza osoan zehar, eta eraginkor egin dezan dislexiadun ikasleen hezkuntza-inklusioaren printzipioa. Hartara, honako jarduketa hauek egingen ditu:

– Irakasle arrunten nahiz pedagogia terapeutikoko eta entzumeneko eta hizkuntzako irakasleen prestakuntza eguneratua funtsean sustatu.

– Protokoloak helarazi, eskola-testuinguruan sor daitezkeen hezkuntza-premien detekzio goiztiarra areagotzeko.

– Beharrezkoak diren laguntza jarriko dela bermatu, bai eta jarraipena emanen zaiola ere hezkuntza-etapa guztietan zehar, derrigorrezkoek harago.

– Beharrezkoak diren hezkuntza- eta giza baliabideak jarri neurri horien eraginkortasuna lortzeko”.

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garbiketa zerbitzuen kontratazio publikoari buruzko txosten bat egin dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko otsailaren 2an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garbiketa zerbitzuen kontratazio publikoari buruzko txosten bat egin dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du garbiketa zerbitzuen kontratazio publikoari buruzko txosten bat egin dezan. Txosten horretan, urtea joan urtea etorri izandako lizitazio-prezioen azterlan bat jasoko da, bai eta Kontuen Ganberaren gomendio horiei jarraikiz ezarritako neurriak ere.

Txosten hori hiru hilabeteko epean eginen da, eta Parlamentuari igorriko zaio, azter dezan.”

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua premiatzen da handitu dezan Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua.**

### *HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2017ko otsailaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua premiatzen da handitu dezan Nafarroako Lanbide heziketako ikastetxeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen du handitu dezan Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua.”

Iruñean, 2017ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestazio ortoprotesikoen katalogoa gaurkotu dezan.**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2017ko otsailaren 7an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestazio ortoprotesikoen katalogoa gaurkotu dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prestazio ortoprotesikoen katalogoa gaurkotu dezan eta berriki ditzan gailu bakoitzari esleitutako tarifak, katalogoan jasota dauden produktuak eta osasun arloko prestazio hori emateko prozedura.”

Iruñean, 2017ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Karlismoaren Museoaren edukiak berriki ditzan eta azaroaren 11ko 81/2016 Foru Agindua indarririk gabe utz dezan.**

### *KULTURA, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2017ko otsailaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Karlismoaren Museoaren edukiak berriki ditzan eta azaroaren 11ko 81/2016 Foru Agindua indarririk gabe utz dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bederatzi hilabeteko epean plan bat aurkez dezan Karlismoaren Museoaren edukiak (erakusketa iraunkorra) berrikuste-

ko, fidelki adieraziko duena Karlismoak bere aldaeretakoa edozeinetan izandako jokabidea II Errepublikan, estatu-kolpe frankistan eta ondoriozko errepresioan, Gerra Zibilean, frankismoan eta trantsizioan, Jurramendiko gertakariak barne, 1977ko hauteskunde demokratikoetara heldu arte.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Karlismoaren Museoko batzorde aholku-emailea izendatzen duen azaroaren 11ko 81/2016 Foru Agindua indarririk gabe utz dezan, eta erakunde hori baliogabetu dezan, bai eta aipatu Foru Agindu horren eskutik esleituta izan lezakeen edozein eginkizun ere.”

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, lan-mahai bat abiaraztea proposatzen da, untxi-izurrirako soluzio-neurriak ezartzearren.**

### *LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak, 2017ko otsailaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, lan-mahai bat abiaraztea proposatzen da, untxi-izurrirako soluzio-neurriak ezartzearren.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, zeinean ordezkatura egonen baitira ukitutako administrazioak –udalak eta Nafarroako Gobernua– eta ehiztari nahiz nekazari elkarteak, untxi-izurrirako soluzio-neurriak ezartzeko xedez.”

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako herrien izen ofizialak erabaki ditzan.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

David Anaut Peña jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako herrien izen ofizialak erabaki ditzan.”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko otsailaren 2an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztu

tutako mozioa baztertea. Mozio hori 2016ko azaroaren 4ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olo, egia ez esateagatik Nafarroako Gobernuak ETaren terrorismoaren biktimekin izandako harremanari buruz.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Ana María Beltrán Villalba andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olo, egia ez esateagatik Nafarroako Gobernuak ETaren terrorismoaren biktimekin izandako harremanari buruz.”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko otsailaren 2an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2017ko urtarrilaren 2ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri ekonomikoak har ditzan, Nafarroan enpresen deslokalizazioa ekiditeko.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Carlos García Adanero jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri ekonomikoak har ditzan, Nafarroan enpresen deslokalizazioa ekiditeko.

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko otsailaren 2an egindako bileran, erabaki zuen aurkez-

tutako mozioa baztertea. Mozio hori 2017ko urtarrilaren 31ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

